COAVN

Información Colegial
Elkargoko Informazioa

27/09/2017
2017/09/27
99

OSALAN
Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea
Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laborales

**Beneficios que supone la cobertura de las Contingencias Profesionales para las trabajadoras y los trabajadores autónomos.**

Por su interés, se trasnscribe nota informativa del Director de Osalan

**Langile autonomoentzat Kontingentzia Profesionalen estaldurak dituen onurak.**

Bere interesagatik, Osalaneko Zuzendariaren ohar informatiba transkribitzen da

Desde el Departamento de Trabajo y Justicia del Gobierno Vasco, junto con Osalan - Instituto Vasco de Seguridad y Salud laboral, y con la colaboración de la Asociación Vasca de Autónomos AVA-ATA EUSKADI, consideramos importante impulsar una campaña que permita subrayar los beneficios que supone la cobertura de las Contingencias Profesionales para las trabajadoras y los trabajadores autónomos.

Para facilitar su recuperación y rápida reincorporación al trabajo, las Mutuas Colaboradoras con la Seguridad Social, en caso de accidente de trabajo o enfermedad profesional, pondrán a disposición de todo autónomo y autónoma que tenga cubiertas las citadas contingencias profesionales, una serie de servicios, entre los que se encuentran la urgencia ambulatoria, la consulta médica y traumatológica, el tratamiento médico, la rehabilitación funcional o la hospitalización e intervenciones quirúrgicas.

Asimismo, si su enfermedad le incapacitase para trabajar, cobrará una prestación equivalente al 75% de su base de cotización, a partir del día siguiente de la baja médica, teniendo derecho a indemnizaciones en los casos de lesiones permanentes no invalidantes, incapacidad permanente o muerte.

Por otra parte, podrá acceder a ayudas sociales, dirigidas a trabajadoras y trabajadores autónomos en baja médica por contingencia profesional, que se encuentren en estado de necesidad, para hacer frente a la contratación de una persona que le pueda ayudar al mantenimiento de su actividad y a afrontar los gastos esenciales de la unidad familiar.

**Para la contratación de esta cobertura, solamente tiene que cumplimentar el impreso (TA-521-1) y presentarlo, antes del 30 de septiembre,** ante la Tesorería General de la Seguridad Social (TGSS), siendo el cambio efectivo a partir del 1 de enero de 2018.

Como siempre, nos ponemos a su disposición para facilitarle más información y resolver cualquier duda que pueda surgirle al respecto.

Alberto Alonso Martín

Director General-Zuzendari Nagusia

Garrantzitsua iruditzen zaigu Eusko Jaurlaritzaren Lan eta Justizia Sailetik, OSALAN – Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundearekin batera eta AVA-ATA EUSKADI Euskal Autonomoen Elkartearekin elkarlanean, kanpaina bat abiatzea, langile autonomoentzat kontingentzia profesionalen estaldurak zer onura dituen azpimarratzeko helburuz.

Errekuperazioa errazteko eta lantokira azkar itzultzeko, Gizarte Segurantzarekin lankidetzan diharduten mutualitateek, lan istripuren bat edo gaixotasun profesional bat egonez gero, zenbait zerbitzu jarriko dituzte aipatutako kontingentzia profesionalen estaldura duten autonomo guztien eskura. Horien artean daude, besteak beste, larrialdi anbulatorioa, mediku-tratamendua, errehabilitazio funtzionala edo ospitaleratzea, eta ebakuntza kirurgikoak.

Era berean, zure gaixotasunak lanerako ezinduta uzten bazaitu, prestazio bat jasoko duzu –zure kotizazio-oinarriaren %75aren parekoa–, medikuaren baja jaso eta hurrengo egunetik aurrera, eta eskubidea izango duzu kalte-ordainak jasotzeko, baliaezintasunik gabeko lesio iraunkorren, ezintasun iraunkorren edo heriotzen kasuan.

Bestalde, aukera izango duzu, kontingentzia profesionala dela-eta, medikuaren baja duten eta beharrizan-egoeran dauden langile autonomoei zuzendutako laguntza sozialak jasotzeko, jarduera mantentzen laguntzeko pertsona bat kontratatzeko gastuari aurre egiteko eta familia-unitatearen oinarrizko gastuei aurre egiteko.

**Estaldura hori kontratatzeko, inprimakia (TA-521-1) bete, eta irailaren 30a baino lehen** Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusira (GSDN) eraman behar duzu. Aldaketa 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera gauzatuko da.

Betiko moduan, zure esanetara jartzen gara, gai honekin lotutako informazio gehiago helarazteko eta edozein zalantza argitzeko.

Pdf de la comunicación
Komunikazioaren pdf-a